



5/2019 JARRAIBIDEA, OSAKIDETZAKO ZUZENDARI NAGUSIARENA, 5/2018 JARRAIBIDEA PARTZIALKI ALDATZEN DUENA, LEHEN MAILAKO ARRETAREN ARLOAN BARRUKO HITZARMENEN KUDEAKETA HOBETZEKO PROGRAMEN BARRUAN DAUDEN EDO BEREZKO BALIABIDEAK DITUZTEN OSAKIDETZAKO ASISTENTZIA UNITATEETAN ZERBITZUAK EMATEN DITUEN PERTSONALARI PRODUKTIBITATE-OSAGARRIA APLIKATZEKO IRIZPIDEEN HARIRA.

5/2018 Jarraibideak ezartzen ditu uztailaren 21eko 206/1992 Dekretuaren prozeduraren eta Dekretu hori garatzen duen egun bereko Aginduaren garapenerako irizpide orokorrak, Lehen Mailako Arretaren, EAGaren eta Emergentsien arloetan Osakidetzaren Asistentzia Unitateen baliabideekin kudeaketa sanitarioa hobetzeko programaren barruan, eta Lehen Mailako Arretako Pediatriako eta Familia Medikuntzako Pertsonal Fakultatiboari eta EAG eta Emergentsietako Pertsonal Fakultatiboari aplikatzen zaie, hala finkoei nola bitarteko edo behin-behineko langileei.

Jarraibide horrek, zehazki Lehen Mailako Arretan, programan parte hartzeko bi modalitate ezartzen ditu:

- A modalitatea: beste fakultatibo bati esleitutako pazienteei ohiko lanalditik kanpo kontsulta pasatzea konpentsatzeko dena. Modalitate honek profesionalaren ohiko lanaldiaren 2 orduko luzapena exijitzen du.
- B modalitatea: aparteko kasuetan eta oro har ezarritako baldintzak betez, beste fakultatibo bati esleitutako paziente guztiak fakultatibo hori lanera ez joateagatik asistentzia-jardueraren ohiko ordutegia luzatuz pilatzea konpentsatzeko dena. Pilaketa partziala bada eta pazienteak profesional baten baino gehiagoren artean banatzen badira, ordainketa proportzionalki egingo da jarduera beren gain hartzen duten profesionalen kopurua kontuan hartuz.

B modalitatearen harira, modalitatearen aplikazioaren interpretazioa finkatzeko helburuarekin, 41/2018 zerbitzu-oharra eman zen, eta aipatutako 5/2018 Jarraibidearen osagarria da. Bertan xedatzen denez, B modalitatea aplikatzen da beste fakultatibo bati esleitutako pazienteak pilatzen diren kasuetan, baldin eta horren ondorioz fakultatiboak bere lanaldian ordu gehiago igarotzen baditu asistentzia ematen, hau da, asistentzia-ordutegia luzatu behar badu, baina ez ohiko lanaldia luzatu behar badu.

Osakidetzaren Zuzendaritza Nagusiaren 5/2018 Jarraibideak urtebete indarrean daramanean, pazienteen agenden kudeaketa aztertuta, exijitutako baldintzen betetze-mailaren eraginkortasunaren adierazle gisa eta oporraldiko jarduera asistentziala antolatzeke asmoz, beharrezkotzat jo da Osakidetzaren Lehen Mailako Arreta osorako aldi baterako irizpide bateratuak zehaztea, uztailetik irailera bitarteko estaldura asistentzialeko planaren beharrei hobeto erantzuteko eta aplikazio homogeneoa bermatzeko.

Azaldutakoaren ondorioz, eta Osakidetzaren Zuzendaritza Nagusiari dagozkion eskumenez baliatuz, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoaren Estatutuak onartzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuaren 11 b) artikuluari jarraiki eta 1992ko uztailaren 21eko Aginduaren 2. Artikuluan eta lehenengo azken xedapenean ezarritakoa betez, honako jarraibideak eman dira:

JARRAIBIDEAK:

Lehena: 5/2018 Jarraibidean ezarritako bi modalitateak mantentzen dira, A modalitatea eta B modalitatea, alegia, aipatutako Jarraibideak eta zerbitzu-oharrek ezarritako irizpide orokorre jarraiki, eta horietan ezartzen den bezala, A modalitateak ohiko lanaldia luzatzea eta B modalitateak jarduera asistentzialaren ohiko ordutegia luzatzea dituzte baldintza.

Arretaren jarraitutasuna bermatzeko eta eskaerari erantzuteko, Jarraibidean ezarritako bi modalitateetako edozeinen jarduera norbere borondatez onartzeko aukera eskainiko zaio pertsonal fakultatiboari, eta ahal dela, kasuan kasuko Unitate edo Zentrokoari.

Bigarrena: oporraldian, uztailetik irailera bitarteko hilabeteetan (biak barne), langileak kanpoan izango diren aldiak ezin badira ordezkatu ez dagoelako profesionalik eskuragarri ordezkapenen aldi baterako eta behin-behineko kontratazioen zerrendan, bi modalitateetako edozein aplikatu ahalko da:


- 1.. Aipatutako oporraldian langileak kanpoan izango diren aldi programatuetan, lehenengo egunetik aurrera.
- 2.. Profesionalak kanpoan badira aldi baterako ezintasunagatik, lehenengo egunetik aurrera, profesionala lanera ez doan eta ordezkatu ezin den bitartean.
- 3.. Langileak kanpoan diren gainerako aldi ez-programatuetan, langilea falta denetik 24 ordu igarotzen direnetik aurrera, lanera ez doan eta ordezkatu ezin den bitartean.

Hirugarrena: bi modalitateetako edozeinetan exijitzen diren baldintzak mantentzen dira, baita biak aplikatzeko baldintzak orokorrak ere, lanaldi arruntean edo jarduera asistentzialaren ohiko ordutegian egunean batez beste 30 edo 35 paziente izateko betekizuna izan ezik, eta edozein kasutan ere agendak asistentzia-beharretara egokitu behar dira.

Laugarrena: oso-osorik indarrean daude Osakidetzaren Zuzendaritza Nagusiaren 5/2018 Jarraibidean jasotako gainerako arauak.

Bosgarrena: Jarraibide hau Osakidetzaren intranetean argitaratuko da eta sinatzen den egunaren biharamunean sartuko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2019ko ekainaren 27an



Iz.: JUAN LUIS DIEGO CASALS
OSAKIDETZAKO ZUZENDARI NAGUSIA
EUSKAL OSASUN ZERBITZUA